



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 13a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen dira aplika eta susta dezaten memoriari buruzko politika barneratzailea, askotarikoa eta adiskidetzean, elkarrekiko errespetuan eta gorrotoaren aienatzean oinarritua. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako erakundeak premiatzen dira plaka bat jar dezaten ETA banda terroristak Nafarroan eraildako guztien oroimenez eta beste leku batzuetan eraildako nafarren oroimenez. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko katedradun lanpostuetarako deialdia egin dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espedientearen bertan behera utzita. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da klima-aldaketak herrialde txiroetako emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortu dezan eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (19. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrezanez buruzko azterlan bat egin dezan. Alberto Catalán Higuerras jaunak aurkeztu du (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesa ematen diola Iruñeko Udalak sustatutako ekimenari eta aurkeztutako kereilari, 1936ko kolpe militarrek eta geroko diktaduraren errepresioak egindako krimen guztiak ikertzekoari. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos erahiltzearen 40. urteurrena dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, Europaren Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu maiatzaren 9an den Europaren Eguna ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Nazioarteko Egunarekin eta bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie gaixo guztiari. Eledunen Batzarrak onetsia (25. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezela Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egoteari buruzkoa. David Anaut Peña jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatuko diren ekintzei buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (29. or.).
- Galdera, 'Mugikortasuna 2016 Nafarroa' lehiaketari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (31. or.).
- Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistemak biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (33. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko. Izendapen proposamena (34. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaila gorena da.

2. Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak autonomia organiko eta funtzionalez beteko ditu, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera.

3. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute abagune edo komenientziari buruzko baloraziorik eduki.

4. Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da hala ezartzen denean lege honetan edo beste batzuetan, eta gainerakoetan aukerakoa izanen da.

5. Kontseiluaren irizpenak idatziz emanen dira beti eta ez dira lotesleak izanen, legez kontrakoa esaten ez den bitartean”

Zioak: Jaso beharko da, gure antolamenduko arauen gordetzea ez ezik, haien betetzea ere.

Espainiako Konstituzioaren eta Lorafnaren berariazko aipamena jaso beharra dago, estatuko eta gure erkidegoko arau gorenak baitira.

Irizpenak abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdien arabera emateak, azaldutako arrazoiak direla-eta, berarekin dakar gure erkidegoko kontsulta-organo goren gisa daukan izaera independentea galtzea; izan ere, organoa legeztatun alderdiei erreparatu behar die soilik, eta ez judizio politikoa dakarten beste batzuei.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“2. artikulua. Kontseilukideak.

1. Kontseilua zazpi kidek osatuko dute, izen aitortua eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta Kontseiluak ezagutu beharreko gaietan gaitasun egiaztatua dutenak, nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

2. Kontseilukideak sei urterako izendatu ahal izanen dira, eta beste behin baizik ez dira hautatu ahal.

3. Kontseilukideak independenteak izanen dira eta ezin izanen dira kargutik kendu”

Zioak: Kontseiluaren irizpenaren beraren arabera, kopurua jaitsita ez da nabarmen hobetzen gastua, baina funtzionamenduaren eraginkortasuna nahasten da, kontuan hartuz kontseilukideek ez dutela bateraezintasun araubidean lan egiten eta haien eskumenak ez direla gutxitu. Gainera, eztabaidaren aberastea mugatzen da, zeina kontsulta-eginkizunean asmatzearen bermea baita.

Agintaldiak zortzi urtez irauteari dagokionez, gehiegizko aldia ematen du, kontuan hartuta aukera demokratikoagoa dela Parlamentuak sei urtez behin Kontseilua berritzea, eta kasuko kontseilukidearen balioa demostratuta eta Parlamentuak hala erabakita, hura berriz hautatzeko beste agintaldi bat baizik ez egotea.

Zortzi urterekin zein sei urterekin independenztzia aldeztu da, zeren eta legegintzaldiaz haratagoko agintaldia baita, baina postuan erosoegi egotera iritsi gabe.

3. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Kontseilua bost kidek osatuko dute, izen aitortua eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera zibila daukaten juristen artean izendatuak.”

Zioak: Gure ustez, nafar izaera zibila izateak bermatzen du Nafarroako errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politikoa sakontasun handiagoz ulertzea, eta hori ezinbestekoa da Nafarroako Kontseiluak egin beharreko irizpenak egiteko. Bestalde, erraz lor daitekeen baldintza bat da, aplikatzekoa den araudi zibilaren arabera.

4. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Nafarroako Kontseiluko kideak sei urtez izendatuko dira eta ezin izanen dira berriz hautatuak izan.”

Zioak: Gure ustez, egokiagoa da epea laburragoa eta Nafarroako beste erakunde batzuetarako dagoenaren parekoa izatea. Halaber, kontseiluburuaren agintaldiari buruzko zuzenketa aurkeztu dugu, hiru urteko agintaldia ezartzeko, ezin berrituko dena.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“3. artikulua. Nafarroako Parlamentuak eginiko hautaketa.

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari dagokio hautatzea, gehiengo osoz, Nafarroako Kontseiluko kide izendatuak izateko proposatuko diren pertsonak.

2. Kontseiluan postu huts bat suertatzen denean, hilabeteko epean jarriko da abian hura betetzeko prozedura, hurrengo idatz-zatietan xedatuari jarraituz. Nolanahi ere, postu huts bakoitza betetzeko proposamena banaka egingen da, eta kasuko izangaia banaka hautatuko da.

3. Proposamenarekin batera, izangai bakoitzak bere onarpena adierazten dueneko idazki bat aurkeztuko da.

4. Nafarroako Parlamentuak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, izangaia edo izangaiak deituko ditu arloan eskuduna den batzordean agertzerak, beren merezimenduak azal ditzaten.”

Zioak: Postu hutsak betetzea dela-eta, prozesuak metatzeko ezintasuna kentzen da, zeren eta ez baitator bat 5. idatz-zatiarekin, non izangaiei buruz mintzatzen baita, eta argitasun handiagoa ematen baitaio.

Hirugarren idatz-zatia kentzen da, zeren eta izangaiak proposa ditzaketan entitate edo erakundeak mugatzen baititu, eta sektarioa gerta baitaiteke.

6. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3. artikulua. Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzea.

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari dagokio hautatzea, gehiengo osoz, Nafarroako Kontseiluko kide izendatuak izateko proposatuko diren pertsonak. Pertsona horiek honela izendatuko dira:

a. Hiru, parlamentu-taldeek proposatuta.

b. Bat, berariaz eta 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete, Elkarteen Erregistroan izena emanda egon eta Nafarroako Foru Komunitatearen jarduketa-esparruan diharduten gisa guztietako elkarteek proposatutako izangaien artean.

c. Bat, 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete eta merezimendu-lehiaketa –haren oinarriak, arau bidez ezarriko dira– egin ondoren puntuazio handiena lortzen duten hiru funtzionarioen artean.

2. Proposamenarekin batera, izangaiak onarpena adierazten dueneko idazki bat aurkeztuko da.

3. Kontseiluan postu huts bat suertatzen denean, hilabeteko epean jarriko da abian hura betetzeko prozedura aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz. Aurreko idatz-zatian adierazitako entitate berdinek proposatutako izangaia hautatuko da, postua hutsik uzten duen kontseilukidea zein den.

4. Nolanahi ere, postu huts bakoitza bere aldetik hornituko da, postu huts bat baino gehiago hornitzeko prozedurak metatu arte itxaron gabe, salbu eta guztiak parlamentu-taldeen proposamenaz izendatu beharreko pertsonak badira, azken kasu horretan batera zenbait postu hutsen hornitzea izapidetu ahalko baita.

5. Nafarroako Parlamentuak, dela jatorrizko hautapenerako, dela postu hutsak hornitzeko, izangaia edo izangaiak deituko ditu arloan eskuduna den batzordean agertzeraz, beren merezimenak azal ditzaten”

Zioak: Gure ustez, proposatutako aldaketak kontrol demokratiko handiagoa bermatzen du Nafarroako Kontseilua osatu behar duten pertsonen izendapenari dagokionez.

7. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Artikulu horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izendatuko ditu hautatutako pertsonak, 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz”

Zioak: Gure ustez komenigarriagoa da izendapena Parlamentuko lehendakariak egitea, Parla-mentua baita Nafarroako aniztasun politikoa ordezkatzeko duen organo politikoa.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“5. artikulua. Antolaketa.

1. Nafarroako Kontseilua balio osoz eratzeko, hau da, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, buruak eta idazkariak bilkuran egon behar dute, edo, bestela, beren ordezkoei, eta, gutxienez, kideen erdiei.

2. Kontseiluburua kontseilukideen artean hautatuko da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egingen da. Horretan boto gehien eskuratu duen pertsona joko da hautatutzat. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingen da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik zaharrena suertatuko da hautatuta. Kontseiluburua hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluburuaren agintaldiak gehienez sei urte irauten du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

3. Kontseiluburuaren kargua hutsik badago, edo kontseiluburua kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari ariko da idazkari ez den kiderik adindua, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.

4. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artean hautatuko da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egingen da. Horretan, boto gehien eskuratu duen pertsona suertatuko da hautatua. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingen da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik gazteena izendatuko dute. Kontseiluko idazkaria hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluko idazkariaren agintaldiak gehienez sei urte irauten du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

5. Idazkariaren kargua hutsik badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari ariko da lehendakari ez den kiderik gazteena, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte”

Zioak: Hiru kide bertaratzearen aipamena ordeztzen da, zeren eta beste osaera bat proposatu eta ezartzen baita, Administrazio eta Prozedura Legeak kide anitzeko organoak modu baliagarrian eratzeko xedatuari jarraituz. Lehendakari eta idaz-

kari figurak jaso dira, lege horretan eta aldatetaren beraren 6.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Lehendakariaren eta idazkariaren agintaldia sei urtekoa izanen dela ezartzen da, hain zuzen ere zuzenketa bidez gainerako kontseilariatzat proposatu den bera, eta Kontseiluak berak emandako irizpena kontuan hartuta, funtzionamenduko nahasteak ez sortzearen. Mantentzen da kargu horiek ezin izanen direla berriz hautatu, txandaketa motibatuzeko, baina nolabaiteko egonkortasunarekin.

9. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. tituluko 5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Artikulu horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“5. artikulua. Antolaketa.

1. Nafarroako Kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, bilkurak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da kide guztiak bertaratuta egotea.

2. Kontseiluburua kontseilukideen artetik hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egingen da. Horretan boto gehien eskuratu duen pertsona joko da hautatutzat. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingen da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik zaharrena suertatuko da hautatuta. Kontseiluburua hautatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluburuaren agintaldiak hiru urte iraunen du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

3. Kontseiluburuaren kargua hutsik badago, edo kontseiluburua kanpoan edo eri dagoenean, haren ordeztariko da idazkari ez den kiderik adindua, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.

4. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artetik hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egingen da. Horretan, boto gehien eskuratu duen pertsona suertatuko da hautatua. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingen da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik zaharrena suertatuko da hautatuta. Kontseiluburua hautatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluko idazkariaren agintaldiak

gehienez hiru urte iraunen du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

5. Idazkariaren kargua hutsik badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordeztariko da lehendakari ez den kiderik zaharrena, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.”

Zioak: Gure ustez komenigarria da tamaina-txikiko organo batek, are txikiagoa aldatetaren ondoren, kide guztiak bertan direla bildu behar izatea.

Gainera, beste zuzenketa batzuen ildoari jarraituz, komenigarria iruditzen zaigu izendapenak Nafarroako Parlamentuko lehendakariak egitea, eta hiru urterako, kontuan izanda Nafarroako Kontseiluko kideen agintaldia sei urtekoa dela gehienez.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“6. artikulua. Kontseiluaren eginkizunak.

1. Nafarroako Kontseiluak hurrengo eginkizunak ditu:

a) Irizpenak onestea.

b) Nafarroako Kontseiluko lehendakaria eta idazkaria hautatzea.

c) Kontseiluaren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua aldatzeko proposamena onestea. Proposamen hori Gobernuari aurkeztuko zaio, onets dezan, eta berdina jokatuko da barne funtzionamenduko gainerako arauekin ere.

d) Nafarroako Kontseiluaren aurrekontuen eta kontuen aurreproiektuak onestea.

e) Kontseiluaren beraren plantilla organikoa onestea.

f) Urteko oroitidazkia onestea.

g) Foru lege honetan ezarritako errekurtsio administratiboen ebazpena.

h) Nafarroako Gobernuari kontseilukideen kargua eteteko eskabidea aurkeztea, foru lege honetako 10. artikuluari jarraituz.

i) Nafarroako Kontseiluari dagozkion gainerako eginkizunak, beste organo bati esleituta ez daudenak.

2. Kontseiluaren erabakiak baliozkoak izateko, kideen gehiengo osoa bertaratuta egotea beharrezkoa izanen da, eta, betiere, kontseiluburua eta idazkaria edo zuzenbidearen arabera haien ordeztuak dihardutenak. Salbuespena izanen dira foru lege honen garapen-erregelamenduan Kontseiluaren Osoko Bilkurak, kide guztiak osatuak, hartu beharrezkoak direla adierazitako kasuak.

3. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri."

Zioak: Izenburutik osoko bilkuraren aipamena kendu da, zeren jotzen baitugu aurreko legedietatik arrastan ekarritako aipamena dela, haietan osoko bilkura eta batzorde iraunkorra bai baitzeuden. Gainera, Kontseilua kide guztiak eratuta egotearena kontraesanean dago 2. idatz-zatian ezarritakoarekin, bertan bestelako quorumak ezartzen baitira.

Irizpenak emateko kide guztiak bertaratzeko betebeharra atzerapenak sor ditzake haiek egiteri begira. Nahikoak dira ezarrita dauden gehiengoak.

Erregelamenduan bereizi beharko litzateke zer den kide guztiak edo haietatik gehienak bertan direla onetsi beharrezkoa.

Eginkizun gehiago sartzen dira, zeren eta hemen erregelamendua eta legea batean bildu baitira, eta hala ere gure ustez agertu beharko liratekeen eginkizun batzuk kanpo utzi dira, bereziki Erregelamenduari dagokionez, Kontseiluaren irizpenean ageri den bezala, hain zuzen bere autonomia bermatzeko.

11. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 6. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen dute aurrerantzean:

"2. Kontseiluaren erabakiak baliozkoak izateko, beharrezkoa izanen da kide guztiak bertaratzea.

3. Erabakiak hartuko dira Kontseiluko kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri."

Zioak: Gure ustez komenigarria da tamaina txiki organo batek, are txikiagoa aldaketaren ondoren, kide guztiak bertan direla bildu behar izatea erabakiak hartzeko.

Ez da beharrezkoa, horrenbestez, "bertaratuta" kideen erreferentzia aipatzea, zeren eta 6. artikuluko 1. idatz-zatirako eta 5. artikulurako proposatu den aldaketan exijitzen baita kontseilukide guztiak bertan egotea Nafarroako Kontseilua modu baliagarrian eratzeko eta erabakiak hartzeko.

12. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposamen honen 9. artikulurako proposatu den 1. idatz-zatiari i) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"i) Ikertua, inputatua edo parekoa izatea Zigor Kode indarduneko XIX. XX. bis eta XX. tituluetan aurreikusitako delituren batengatik, edo etorkizunearan haiek ordeztu ditzaketan pareko delituengatik."

Zioak: Gure ustez, nolabaiteko zintzotasuna, gardentasuna eta aitortza publikoa eduki behar dituzte Nafarroako Kontseilua bezalako erakunde bateko kideek, eta horrek berarekin ekarri behar du haien izaera galtzea baldin eta inputatuta edo ikertuta badaude Administrazio Publikoaren edo Justizia Administrazioaren aurkako delituengatik edo nazioarteko merkataritza-transakzioetan ustelkeria delituak egiteagatik.

13. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

"2. Kargu-uztea gertatuko da Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabakia hartuta. Aurreko idatz-zatiko d), e) eta i) letretan aurreikusitako kasuetan eskatuko da Nafarroako Gobernuak bere kabuz nahiz Parlamentuaren batzorde eskudunaren eskariz izapidetutako espedienteak, eta interesdunari eta Kontseiluari entzunaldia emanen zaie."

Zioak: Gure ustez komenigarria da ezen, kontseilukideak Nafarroako Parlamentuak izendatzen dituen bezalaxe, haien kargu-uztea modu berean gerta dadila, berme berdinekin.

14. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluko 10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“10. artikulua. Etetea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, bere kabuz edo Kontseiluaren eskariz eta haren iritzia entzun ondoren, kontseilukide-jarduna eten ahalko du 9.1. artikuluko d), e) eta i) letretan adierazitako karguzte arrazoiei buruz ebazteko behar den ezinbesteko eperako, eta, halaber, auzipetzea edo akusazio penal irmoa gertatzen den kasuetan.”

Zioak: Gure ustez komenigarria da kontrola Nafarroako Parlamentuak egitea, eta ez Gobernuak, Nafarroako Kontseiluko kideen etetei buruzko gaietan, zeren eta Parlamentua baita ordezkari politikoaren organoa eta Nafarroako herriaren subiranotasuna ordezkatzeko duena.

15. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluko 11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“11. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak behartuta egonen dira joatera jorratu beharreko gaiei buruzko eztabaidarako bilkuretara eta deitzen zaien gainerakoetara; eskatzen zaizkien azterlan, ponentzia eta lanak –beren karguari dagozkionak– egitera, eta jarduketa eta eztabaidei buruzko sekretua gordetzera.”

Zioak: “Normaltasunez” hitza kendu beharra dago, zeren eta zehaztu gabea baita eta interpretazio desberdinak sor baititzake.

Gainera, bat dator modu baliagarrian eratzeko eta erabakiak hartzeko kontseilukide guztiak bertaratzeko betebeharra ezartzen duten gainerako zuzenketekin.

16. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“11. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak behartuta egonen dira normaltasunez joatera jorratu beharreko gaiei buruzko eztabaidarako bilkuretara eta deitzen zaien gainerakoetara, eta eskatzen zaizkien azterlan, ponentzia eta lanak –beren karguei dagozkionak– egitera. Inhibitu egin beharko dira baldin eta aztertu beharreko gaian jardun badute edo gai hori enpresa edo sozietateren bati interesatzen baldin bazaio, eta goi kargua dutenek edo haren ezkontideak edo laugarren gradu zibil arteko senitartekoren batek, aipatu enpresa edo sozietatearen zuzendaritza, aholkularitza edo administrazioan parte hartu badute. Kontseiluko kidek jarduketa eta eztabaidei buruzko sekretua gorde beharko dute.”

Zioak: Irizpenetan independentzia-berme handiagoak ematen dira.

17. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluko 14. artikuluko 1. idatz-zatiko h) eta i) letrak aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen dute letra horiek:

“h) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskubide ekonomikoei buruzko transakzioak –epaiketa bidezkoak zein epaiketaz kanpoak– eta aipatu eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, baldin eta, bi kasu horietan, auzigaia ehun eta hoge mila euro baino gehiagokoa bada. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen berriazko araudian aurreikusitako prozesu konkurtsaletako akordio eta hitzarmenetan.

i) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak, zeinetan ehun eta hoge mila euroko edo gehiagoko kalte-ordaina eskatzen den.”

Zioak: Gure ustez komenigarria da horrelako irizpenak emateko gehieneko muga gutxitzea, eta hura jartzea erakundearentzat gehiegizko lan-zama ez izateko moduko maila batean, baina altuegi ez, zeren eta zalantzarik gabeko garrantzia duten gaiak arau-aurreikuspenetik kanpo geratuko balirateke.

18. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa. 14.1. artikuluar honako letra hauek gehituko zaizkio:

j) Berrikuspen-errekurtso administratiboak.

h) Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

i) Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, aldaketaren xedea berdeguneen edo espazio libreen bestelako zonifikazioa edo erabilera bada.

j) Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

k) Administrazio-kontratu edo -hitzarmenen interpretazio, deuseztasuna edo iraungipena, kontratista aurka agertzen denean;

l) Kontzesio eta kontratuen aldaketak, baldin eta horien zenbatekoa, dela bakarka dela guztiak hartuta, kontratuaren esleipen balioaren ehuneko 20 baino handiagoa bada eta kontratuaren esleipen prezioa 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada.”

Aldaketa proposameneko j) letrari l) letra jarriko zaio.

Zioak: Ez zerrendatzea zenbait lege-aldaketaren arabera estatuko kontseiluaren –eta, horrenbestez, Nafarroakoaren– irizpena exijitzen duten kasuak, eta proposameneko j) letran sartzeak ez du zentzurik, testua sinpletu nahi bada. Segurtasun juridikoa eta interpretaziokoa kentzen du, legez dakigunean irizpena derrigorrezkoa dela. Horrenbestez, uste dugu hori jaso egin beharko litzatekeela, eta Kontseiluak berak horixe gomendatzen du bere irizpenean. j) letrako kasua ulertu beharko litzateke lege honen onespentetik aurrerako erregulazio berrietarako.

19. ZUZENKETA**GEROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“2. Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkieten gai guztietan, Nafarroako Gobernuak bere ekimenez hala erabakita eta bere lehendakariaren bitartez eskatzen duenean, edo zuzenbide publikoari loturiko Nafarroako entitate edo erakundeek eskatuta, edo Nafarroako Parlamentuak bere lehendakariaren bitartez hala eskatzen dionean,

honako hauen ekimenez. Eledunen Batzarra, Legebiltzarreko Mahaia, bi parlamentu-talde, foru parlamentarien bosten bat edo Nafarroako Arartekoa, azken horren kasuan herritarren eskubideak defendatu eta babesteko egindako ikerketen kartera.”

Zioak: Ahalmena ematea Nafarroako Arartekoari Nafarroako Kontseiluaren irizpen fakultatiboa eskatzeko, halako irizpen baten beharra dagoela jotzen duenean, ofizioz hasitako ikerketen ondorioz edo herritarren eskubideak defendatu eta babesteari buruzko kexa baten ondorioz.

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo bat da, Nafarroako administrazio publikoen jardura gainbegiratzen duena, herritarren eskubideak defendatu eta babeste aldera, horixe aitortzen baitu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18. ter artikulua.

Herritarren eskubideak defendatzeko eginkizun horretan, “legez kanpokotzat” edo “zuzengabetzat” jo daitezkeen egintza edo arau administratiboak topa ditzake, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.b) eta 33.2 artikuluek xedatu bezala; hori dela eta, komenigarritzat jotzen da Nafarroako Kontseiluari irizpena eskatu ahal izatea, antolamendu juridikoaren betetzea zaintzeaz arduratzen den eta osaera guztiz juridikoa duen Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta-organoren irizpena –ez loteslea– ezagutzeko, hain zuzen ere egintza edo arau horiek, herritarren eskubideetan eragin negatiboa dutenak, haren ustez antolamendu juridiko horren aurkakoak izatearen gainekoa.

Halaber, egokitzat jotzen da Nafarroako Arartekoari aitortzea Nafarroako Kontseiluari kontsulta egiteko aukera orokorra eta lege-interpretazio jakin baten arabera herritarren eskubideengan eragin negatiboa izan dezaketen gai jakin batzuei buruz organo horrek daukan legezkontasun-balorazioa ezagutzeko.

Nolanahi ere, irizpen eskaria Nafarroako Parlamentuak eginen du, bere lehendakariaren bitartez.

20. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluko 16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“16. artikulua. Irizpenen onespina eta publizitatea.

1. Irizpenak Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsiko ditu. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren edo haren arrazoiketaren aurkako iritzia dutenek idatziz azalduko dute beren boto partikularra, zeina irizpenari erantsiko baitzaio.

2. Nafarroako Kontseiluaren irizpenak publikoak izanen dira onetsi eta biharamunetik, eta ahal den lasterren argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Kontseiluaren webgunean”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da ados ez daudenen botoak idatziz jasota geratzea irizpen guztietan, boto partikularra idatziz aurkezteko betebeharra adieraziz, eta ez soilik hori egiteko aukera emanaz. ·

Bestalde, gure ustez posible litzateke erabakia onesten diren unetik argitaratzea, hilabete itxaron behar izan gabe, eta, gainera, ezartzea aginduzkoa dela haiek argitaratzea Kontseiluaren webgunean eta NAOn; hori guztia gardentasun handiagoa lortzeko.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“16. artikulua. Irizpenen onespina eta publizitatea.

1. Kontseiluak irizpenak onetsiko ditu foru lege honen 6.2 artikuluan ezarritako baldintzekin. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren edo haren arrazoiketaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahal dute beren boto partikular arrazoitua, zeina irizpenari erantsiko baitzaio”

Zioak: Aldaketa-proposameneko 6.2 artikuluan ezarritakoarekin eta artikuluari berari aurkeztutako zuzenketan erabilitako arrazoiekin bat.

22. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. kapituluko 17. artikuluari beste lerrokada bat, azkena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Kasu horretan, kontseilukide guztiek izanen lukete erantzukizuna. Egitate hori lehendakariaren eta Kontseiluko idazkariaren agintaldi berean hiru aldiz gertatuz gero, ulertuko da kontseilukide guztiak sartzen direla lege honetako 9. artikulukok 1.

idatz-zatiko e) letran aurreikusitako kargu-uzterako arrazoian”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da Nafarroako Kontseiluak irizpenak emateko duen betebeharra indartzea. ·

22. bis ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. kapituluko 17. artikuluari beste lerrokada bat, azkena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Kasu honetan, Nafarroako Kontseiluko kideen erantzukizunak banaka bereiziko dira” Irizpena ez ematearen ardura duen kidea edo kideak foru lege honetako 9. artikuluko lehen idatz-zatiko e) letran kargu-uzterako aurreikusitako arrazoian sartuko dira”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da Nafarroako Kontseiluak irizpenak emateko duen betebeharra indartzea. ·

23. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposameneko III. kapituluan 21. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“21. bis artikulua. Prozeduran parte ez hartzea eta errekusatzea.

1. Kontseilukideek zuzeneko interes objektibo zein subjektiboa duten gaitan parte hartzeari uko egin beharko diote, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat etorritik.

2. Kontseilukideak errekusatzeko eskaria egin dezake alde interesatuak, administrazio prozedurari buruz indarra duen legediarekin bat etorritik”

Zioak: Gure ustez komenigarria da legean abstentzio- eta errekusazio-arrazoiei eustea, organoaren eta haren kideen independentzia bermatzeko, irizpena emateko aurkezten zaizkion gaiak direla eta.

24. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposameneko IV. kapituluko 23. artikuluari 4. idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“4. Nolanahi ere, foru lege honen 13. artikuluan aipatzen diren ordainsariak Nafarroako Parlamentuko batzorde eskudunak onetsi beharko ditu.”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da Nafarroako Kontseiluko kideen ordainsari ekonomikoen zenbatekoari buruzko kontrola organo independente batek egitea, zeina kasu honetan eta une honetan Parlamentuko Foru Araubideko Batzordea izanen baillitzateke.

25. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. kapituluko 24. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Maila igoerako mugigarritasuna eta maila bereko mugigarritasuna Nafarroako Kontseiluaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean aplikatuko dira. Horretarako, Nafarroako Kontseiluko funtzionarioek parte har dezakete Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen lanpostu-betetze lehiaketetan eta txanda murriztuaren bidez lanposturatzeko hautaprobetan, eta alderantziz. Lanpostuak betetzeko prozesu guztiak izangaien merezimendu- eta gaitasun-irizpideei jarraituz eramanen dira.”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da nabarmen-tzea eginkizun horietarako sarbidea beti merezimendu- eta gaitasun-irizpide objektiboen arabera izanen dela.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“2. Maila igoerako mugigarritasuna eta maila bereko mugigarritasuna Nafarroako Kontseiluaren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Parlamentuaren artean aplikatuko dira. Horretarako, Nafarroako Kontseiluko funtzionarioek parte har dezakete Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Parlamentuak egiten dituen lanpostu-betetze lehiaketetan eta txanda murriztuaren bidez lanposturatzeko hautaprobetan, eta alderantziz.”

Zioak: Irekiagoa iruditzen zaigu, mugikortasunari dagokionez, halako funtzionarioei ere sarrera ematea.

27. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Hona eduki berria:

“Lehen xedapen iragankorra.

1. Nafarroako Kontseiluko egungo kideek kargua utziko dute beren agintaldiaren amaieran, izendatu zirenean indarra zuen araudiari jarraituz, salbu eta berriz hautatzen badira, foru lege honen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Hala eta guztiz ere, aurreko idatz-zatia dela eta honako salbuespen hauek jaso dira:

a) Foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako Gobernuak proposatuta izendatutako egungo Nafarroako Kontseiluko bi kideek utziko dute beren kargua, eta beste bi kide izendatuko dira foru lege honen 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz. (aurkeztutako zuzenketari jarraituz)

b) Behin bi postu huts horietako kontseilukideak izendatuta, Kontseiluko lehendakariak eta idazkariak utziko dute kargua, non eta ez diren aurreko letran xedatutakoari jarraituz kargua utzi duten kontseilukideak, eta Kontseilu berriak, kide guztiak osatuak, lehendakari eta idazkari berriak hautatuko dituzte, foru lege honen xedapenei jarraituz.

7. Foru lege honek indarra hartu eta zortzi urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak izendatutako kontseilarietarako xedatua alde batera utzita –koherentzia auka proposamenarekin eta aurkeztutako zuzenketekin–, ez da ulertzen zergatik utzi behar duten kargua kide guztiak edo zergatik berriut behar diren postu guztiak, zeren eta kasu bakarrean ere ez baitute gainditzen izendatuta izan zireneko aldia, ez lege indardunari, ez aldaketa-proposamenari begiratuta (ez da koherentea berriz hautatuak izateko ezintasunarekin). Badirudi egin nahi dena dela bi urteren buruan kide guztiak aldatzea, halakorik justifikatzen duen pisuzko arrazoirik egon gabe.

Kontseiluko kideak profesional independenteak dira, izen aitortukoak, zeinak, gainera, legegintzaldiaz gorako aldi baterako izendatzen baitira; horrek, izan ere, haien independentzia indartzen du, eta, beraz, lasai jarrai dezakete beren karguan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen dira aplika eta susta dezaten memoriari buruzko politika barneratzailea, askotarikoa eta adiskidetzean, elkarrekiko errespetuan eta gorrotoaren aienatzean oinarritua.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira aplika eta susta dezaten memoriari buruzko politika barneratzailea, askotarikoa eta adiskidetzean, elkarrekiko errespetuan eta gorrotoaren aienatzean oinarritua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkezten die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari:

Aurten Espainiako Gerra Zibila eragin zuen altxamendu militarren 80. urteurrena betetzen da. Hainbat iturriren arabera, gertakari hartan milioi erdi lagun baino gehiago hil ziren –fronteetan, bonbardaketetan eta bi zonetako errepresioan–. 1936ko uztailaren 18aren aurretik ere, II. Errepublikak aldarrikatu zenetik hain zuzen, milaka lagun indarkeria politikoaren biktima izan ziren. Indarkeria horrek aurreko hamarkadetako gatazka politiko

eta sozialak luzatzen zituen; gatazka horien jatorriak Antzinako Erregimenetik Erregimen Berrirako iragate latzean eta Espainiako pobrezia eta injustizia sozialeko egoeran dira aurkitzekoak. Halaber, Gerra Zibilaren amaiera ofizialaren ondoren, 1939ko apirilean, 50.000 lagun inguru hil ziren hainbat liskarretan, fusilatuta edo tratu txarren zein espetxeetako eta kontzentrazio-esparruetako arretoa mediko desegokiaren biktima izanda. Aldi berean, Espainiako milaka herritar erbesteratu behar izan ziren, eta gizarte osoak askatasunik gabeko egoera bat jasan behar izan zuen.

Memoria Historikoaren politika guztien helburuak honako hauek izan behar dira, funtsean: egia-aren bilaketa, jasandako indarkerien aitortpena eta biktimentzako ordaina. Baina, maila sozialean, politika horiek halaber balio izan behar dute, ahal den neurrian, iraganeko zauriak sendatzeko, gorrotoa gainditzeko eta adiskidetzea eta demokrazia sustatzeko. Alde horretatik, Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legeak honako helburu hauek ezarri dizkio bere buruari: “eskubideak aitortu eta gehitzea Gerra Zibilean eta Diktaduran arrazoi politiko edo ideologikoengatik edo erlijio-sinesmenengatik jazarpena edo indarkeria jasan zutenen alde, haienezko ordain moralak sustatzea, eta haien memoria pertsonala eta familiarra berreskuratzea”. Baina baita honako hau ere: “neurri osagarriak hartzea, herritarren arteko zatitze-elementuak desagerraraztekoak, hori guztia espainiarren belaunaldi ezberdinen artean Konstituzioko printzipioen, balioen eta askatasunen inguruko kohesioa eta elkartasuna sustatze aldera.”

80. urteurren hau aukera egokia izan daiteke helburu horiek gauzatzeko eta arrazoi politikoengatik bidegabeko indarkeria jasan zuten lagun guztien memoria berreskuratzea sustatzeko, haien ideiek gaur egun sortu ahal duten adostasun edo

desadostasunaz harago. Gertaera horietatik igaro den denbora luzeak eta gure gizartearen heldutasun demokratikoak ahalbidetu beharko lukete pertsona haiek abusu onartezinen mende egon ziren gizaki gisa baizik ez ikustea. Izan ere, oinarri hori finkatuz eta askotariko gizarte batean iraganari buruzko hainbat kontakizun daudela onartzeko baino ezin izanen dira zauriak behin betiko itxi eta Nafarroa adiskidetu, askotarikoa eta identitate- eta politika-gorrotorik gabekoa eraikitzen aurrera egin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Memoriaren politika barneratzailea eta askotarikoa aplikatu eta sustatzea, oinarri izanen dituen adiskidetzeari, elkarrekiko errespetua eta gorrotaren aienatzea.

2. Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo bi bandoetan errepresaliatuak izan ziren nafarren zerrenda prestatzea.

3. Errepublikako Gobernuaren hegazkinen bonbardaketek hildako edo Gobernu horren kontrolpeko lurraldean eraildako nafarren oroitzapenezko eta ordaineko ekitaldiak ere antolatzea.

4. Plan bat prestatzea, Nafarroa barnean zein Nafarroatik kanpo erail ziren pertsonen oroitzapenezko plakak jartzeko Nafarroako herri ezberdinetan.

5. Gerraren aurretik, gerran zehar eta horren ondoren erailketak eta errepresaliak ekiditeko eta pertsona ezberdinen arteko bizikidetzara eta adiskidetzara errazteko lan egin zuten pertsonen eta/edo agintarien gaineko jakintza eta aitortzea sustatzea.

6. Nafarroako zenbait herriren kasua nabarmentzea, horietan fusilatutako egon ez zelako eta bizikidetzara ez zelako apurtu lurraldearen gaineko herrietan bezain larriki.

7. Gerra Zibilaren 80. urteurrena betetzen den honetan, datozen hiru urteetarako erakusketak eta hitzaldiak antolatzea hainbat joeratako historialarien eta ikertzaileen eskutik, gure iragan kolektiboen ikuspegi kritikoa, askotarikoa eta barneratzailea eskuratzea ahalbidetuko dutenak eta guztion artean hori gainditzeko tresnak eskainiko dituztenak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako erakundeak premiatzen dira plaka bat jar dezaten ETA banda terroristak Nafarroan eraildako guztien oroimenez eta beste leku batzuetan eraildako nafarren oroimenez.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako erakundeak premiatzen dira plaka bat jar dezaten ETA banda terroristak Nafarroan eraildako guztien oroimenez eta beste leku batzuetan eraildako nafarren oroimenez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentariaren elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako erakunde guztietan ETAk Nafarroako Foru Komunitatean eraildako guztien oroimenez eta beste leku batzuetan eraildako nafarren oroimenez plaka bat ezartzeari buruzkoa.

In memoriam

2011ko urriaren 20an ETAk indarkeriaren behin betiko amaiera iragarri zuen, baina ez zuen iragarri bere desegite baldintzagabea, ez eta armak ematea ere, eta oraindik ere ez diegu entzun barrena eskatzen eta gauzatutako kaltea aitortzen.

ETA banda terroristak 845 pertsona erailda utzi zituen bidean, 2.500dik gora zauritu (haietako 700 baliaezintasun handiarekin), dozenaka bahitu, milaka enpresari estortsionatuta, 15.000 profesional baino gehiago mehatxatuta eta derrigorrezko erbesteratu ugari. Historia beldurgarri horren aurrean, erakundeen konpromisoa behar da, aitorpen publikoen bidez egitateak bizirik gordetzeko.

Gaur egun badira oraindik ETAREN erailketak gaitzesten ez dituzten alderdi politiko batzuk eta hiltzaileei omenaldia egiten dietenak, haietako bat espetxetik ateratzen den bakoitzean. Alderdi politiko horiek, nahasteko asmoz, distantziakidetasuna eta anbigutasunak aipatzen dituzte, aurkako bi aldeen arteko gatazkaren teoria zaharrean oinarrituta, kriminalen erantzukizuna ahazteko helburuarekin.

Horregatik, Espainian beste bataila bat dugu irekia orain: biktimen kontakizunaren bataila. Gure erronka da gertatutakoaren bertsio zintzo, zuzen eta egiazko bat helaraztea etorkizuneko belaunaldiei. Arrazoirik gabe isuritako odol guztia ahanzturan eror ez dadin. Ezin dugu onartu bizia jadanik kendu dieten horiei duintasuna eta oroimena ere kentzen saiatzea, eta ekidin behar dugu atentaturik gabe orain dena onargarria delako edo dena ahaztu delako ideia bidegabea ezar dadila.

Biktinek eta beren senideek gizartearen kontzientzia-lana egiten dute, eta oroitzapen bizia dira, terrorismoak nafar herritarren bizitzan izan duen eta oraindik duen eragin suntsitzaile eta iraunkorraren oroitzapena, alegia. Biktimak bakoitza pertsona errugabea zen, gure demokrazia, askatasuna, bakea eta bizikidetzak finkatzeko lan egiten zuena.

Omenaldi bat egin behar da izen-abizenak aipatuta, izen horiek agerian uzten dutelako terro-

rismoa ez dela amaitzen atentatuaren unean bertan; izan ere, denboran zehar hedatzen diren ondorioak ditu. Indarkeriak berekin dakarren gizatasun-galtzearen aurrean, hura pairatzen duen gizakia aldarrikatu behar dugu, terroristek hainbatetan gauza soil bihurtu baitute.

Nafarroako erakundeetan gure eginbeharra da ETAREN biktimak bakoitzaren oroimena bizirik mantentzea eta ez onartzea ahaztu daitezkeen egondako izua eta haien senideek oraindik pairatzen duten mina.

Nafarroan merezi duten bezala tratatu eta gogoratu behar ditugu, demokraziaren heroiak bezala, askatasuna, zuzenbide estatua, bakea eta haien herria defendatzeagatik erailak.

Nafarroako Parlamentua, gure Komunitatean demokraziaren ikurra dena, agertoki egokia da oroitzapenezko plaka baten bidez gogoratzeko ETAK Foru Komunitatean eraildako guztiak, nafar gizartearen izenean jaso ditzaten behar bezalako omenaldia eta betiereko oroitzapena.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakundeak premiatzen ditu ETAK Nafarroako Foru Komunitatean eraildako guztien oroimenez eta beste leku batzuetan eraildako nafarren oroimenez plaka bat jar dezaten Nafarroako Foru Komunitateko erakundeetan. Aipatu plakan jasoko dira eraildako bakoitzaren izen-abizenak, bai eta erailketaren data ere.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba foru parlamentaria

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko katedradun lanpostuetarako deialdia egin dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko katedradun lanpostuetarako deialdia egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1990eko urriaren 3an Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE) onetsi zen. Haren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatian, katedradunen kidegoan sartzeko prozedura ezarri zen. Irakaskuntza-espezialitateak ezarri behar zituen dekretua garatu ezenez, prozedura hori ezin izan zen inoiz abiarazi, eta, harrezkero, hogeita sei urte igaro badira ere, ezin izan da inolako deialdirik egin musika katedradunnez hornitzeko Espainia osoko kontserbatorioak.

Egoera horrek berekin ekarri du Espainian ehun bat katedradun egotea eta Nafarroan zazpi baino ez egotea. Horren ondorioz, plantillaren % 10ek baino ez dauka behin betiko destinoa Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

2006an, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa (LOE), aldarrikatu zen. Lege horrek LOGSE indargabetzen zuen bederatzigarren eta hamargarren xedapen gehigarrietan,

Katedradunen kidegoan sartzeko eta iristeko sistemak arautzen zituen, eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak urtebete geroago garatu zuen; errege dekretu horrek LOEn aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia onartu zuen, eta aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragan-korrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena arautu zuen.

Baina Ministerioak ez zituen ezarri katedradunen kidegoaren irakaskuntza-espezialitateak 2013ra arte, 427 /2013 Errege Dekretuaren bidez. Une horretatik aurrera dagoeneko katedrak deitu ahal dira iriste-prozeduraren bidez, baina ez sartzeko-prozeduraren bidez, ez baitira argitaratu espezialitate horietarako oinarri hartu behar diren gai-zerrendak.

2015ean, Ministerioak abuztuaren 25eko ECD/1752/2015 Agindua argitaratu zuen, zeinaren bidez onartu baitira musika eta dantza espezialitateei lotutako espezialitateetan musika eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko, iristeko eta espezialitate berriak eskuratzeko oinarri hartu behar diren gaiak. Beraz, azken arautze horretatik aurrera gara daitezke hautapen-prozesuak.

Ministro-agindu hori aldarrikatzearekin batera, dagoeneko ez dago lege oztoporik, balizko bi bideetako (sartzea eta iristea) edozeinetatik katedradunen kidegoko lanpostuak deitzea eragozten duenik. Izan ere, Valentziak eta Asturiasek dagoeneko deitu dute prozesua, eta Andaluziak eta Murziak deitzea aurreikusi dute.

Horrekin batera, kontuan hartu behar dugu ezen, musikako goi mailako arte irakaskuntzak Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparrura egokitzeko, berariazko araudi garapen bat behar dela, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren antolamendua eta funtzionamendua arautuko dituen. Orain arte Hezkuntza Departamentuak ezarri ditu jarraibideak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du katedradun lanpostuak ahalik eta lasterren deitzen has dadin Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako, Hezkuntza

Departamentuaren Lan-eskaintza publikoaren (LEP) barnean, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak onetsitako araudian ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Goi Mailako

Musika Kontserbatorioaren antolamendua eta funtzionamendua egokitu ditzan zentro horren berezko ezaugarrietara.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espeditentea bertan behera utzita.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen baitio eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espeditentea bertan behera utzita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2016ko maiatzaren 3an, Euskal Irrati telebistak jakinarazi zuen bere emisioa bertan behera utziko zuela Nafarroako Foru Komunitatean, Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren menpe dagoen Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatu idazkaritzaren zigor-espeditentearen ondorioz.

Espediente hori Nafarroako Gobernuak 2015eko martxoaren 16an aurkeztutako salaketaren ondorioa da. Salaketa Sanchez de Muniáin Lacasia jaunak jarri zuen –orduan Nafarroako Gobernuaren eleduna eta Kulturako eta Erakunde Harremanetako kontseilaria–, EITBren lau kanalen emisioa zela-eta.

EITBren Zuzendaritzaren ustez, “Ministerioak hartutako erabaki horrek esparru erradioelektrikoaren okupazio baketsuaren oinarria hautsi du, hoguei urte baino gehiagoren ostean, eta ETBK Nafarroan emititzeko hartutako erabakiak gidatu eta gero.” Baina, hala ere, jakinarazi du Ministerioaren errekerimendua beteko duela eta 2016ko maiatzaren 5ean emisioa bertan behera utziko duela.

ETBren Nafarroako emisioak Lankidetzako Protokolo baten babesa du. 2009ko uztailearen 3an sinatu zen protokolo hori, Iruñean, eta bere Hirugarren klausulan, B) atalean, Nafarroan ETBren zerbitzuak hedatzeari buruzkoan, honela dio hitzez hitz: “El Parlamento de la Comunidad Foral de Navarra, mediante Resolución de 13 de marzo de 2008, ha instado al Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra a que explore y gestione la posibilidad de firmar convenios de colaboración con

las comunidades autónomas colindantes, a fin de que los canales regionales navarros de TDT puedan sintonizarse en éstas y viceversa, siempre que se respete la realidad institucional de Navarra. A estos efectos, el Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca y el Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra se comprometen a realizar las gestiones necesarias para que los programas de ETB-1 y ETB-2 puedan ser difundidos en la Comunidad Foral de Navarra cumpliendo las obligaciones relativas a los derechos de emisión, con arreglo a las líneas de colaboración.” Protokolo hori indarrean dago; izan ere, ez dago hura bertan behera utzi duen gobernu akordiorik, eta ez dago protokoloaren beste sinatzaileari –Eusko Jaurlaritzari– horrelakorik adierazten dion jakinarazpenik.

ETBren emisioak, bestalde, Nafarroako Parlamentuaren zenbait adierazpenen babesa dauka, zeinek eskatzen baitute ETBren emisioa normalizatu, arautu eta digitaliza dadila; besteak beste, 2013ko urriaren 25ean Parlamentuaren Osoko Bilkurak onartutako ebazpena.

ETBren emisioa normalizatzearen aldeko eskaerak, halaber, eskaera sozial oso garrantzitsu baten babesa dauka. Eskaera sozial horrek uste du ETBren seinalea hartzeak Nafarroako herritar askoren interesei erantzuten diela, batez ere euskarazko hedabideetara irispidea eduki ahal izateko, Nafarroan euskara sustatzeko eta garatzeko hain beharrezkoak izaki. Nafarroan sustapen eta garapen horri begirako legedi propioa dago indarrean, eta euskarazko telebista kateak edukitzeko beharrak eta komenigarritasunak ere Europako Kontseiluaren menpeko egituren babesa dauka, Komunitate honetako hizkuntza politika ebaluatzeraz eta horren inguruan informatzera maiztasun jakin batez etortzen diren egiturena, hain zuzen ere.

Hala bada, Nafarroan ETB ikusteak oinarri sendoa dauka: nafarren hizkuntza eskubideekiko konpromisoa; horretaz gain, eskaera sozial indartsu baten sostengua dauka, Nafarroako Parlamentuak berak berretsia; halaber, informazio eskubideari irekitako beste ate bat da; eta, bestalde, ez dio, inola ere, inori inolako kalterik egiten.

Informazio askatasunaren logika horren aurrean, jarrera ireki baten logikaren aurrean, hizkuntza normalkuntzari bideak zabaltzearen eta herritarren eskubideak zaintzearen logikaren aurrean, Nafarroako Gobernuaren aurreko kudeatzaileen aldetik ETBren emisioa galarazteko jarrera tematia, interesatua eta erabat politikoa agertzen da, aisa asma litezkeen baina azalpen argia eta aitzakiarik gabea beharko luketen arrazoiengatik.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Industria, Energia eta Turismoaren Ministerioaren jardunbidea errefusatzeko du, eta honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari: aipatutako zigor-espeditzea bertan behera utz dezala, ekipoak eta instalazioak prezintatzeko urratsak egiteari uko egin diezaiola, eta, horretaz gain, ETBk Nafarroan multiplex bidez emititu ahal izan dezan eman beharreko urratsak eman ditzala. Halaber, Nafarroako Gobernuari ere eskatzen dio Parlamentuaren eskaera hori bera egin diezaion Espainiako Gobernuari

2. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: eman ditzala, ahalik eta eperik laburrenean, marko legal egoki eta egonkor bat ezartzeko urratsak, ETBren kanalak legez eta normaltasunez jaso ahal izateko bidea emanen dutenak, eta beharrezkoak diren bitarteko teknikoak jar ditzala kaptazioa behar bezalako kalitatearekin eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan gauzatu dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: erabaki proposamen honen bigarren puntuan aipatutako marko legal egokia eta egonkorra nahiz beharrezko bitarteko teknikoak ezartzen diren bitartean, ahalik eta eperik laburrenean eta berandu gabe ETBren seinalea jaso ahal izan dadin behar diren urratsak eman ditzan, une honetan eskura dauden baliabide teknikoaren bitartez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Dabid Anaut Peña, Rubén Velasco Fraile eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da klima-aldaketak herrialde txirotuetako emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortzea eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita klima-aldaketak herrialde txirotuetako emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortzea eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Klima-aldaketa mundu mailako bidegabekeria bat da, eta oraingo zein etorkizuneko belaunaldiak horri egin beharko diote aurre. Nahiz eta erantzule nagusiak herrialde garatuak deitzen direnak izan (Europa, Amerikako Estatu Batuak, Kanada...), beraien ez dira gaur egun klima-aldaketaren ondorio gogorrenak jasaten ari direnak (ez, behintzat, momentuz, eta ez luzaroan, nolahi ere). Izan ere, klima-aldaketa neurri txikienean eragin duten herrialdeak dira –eta, beraz, munduko biztanle txiroenak– beren bizimodu jadanik estuan ondorio larrienak jasaten ari direnak.

Klima-aldaketa hondamendi naturalek eragindako milaka hildakoren zuzeneko erantzulea da, eta migrazioarako lehenengo arrazoa da dagoene-

ko munduan: 40 milioi lagunek baino gehiagok beren etxeak utzi behar izan zituzten 2011n, eta, ACNURen arabera, 2050ean 250 milioi lagun ere egon daitezke egoera horretan. Mundu mailan tenperaturak handitzeak eragiten dituen lehortek eta desertifikazio-prozesuak, elikadura-krisi larriak sortzeaz gain, ehunka milioi pertsonaren bizimoduak hondatzen ari dira munduan, pertsona horiek pobrezia eta bazterkeria kondanatu.

Eskubideak ukitzen dituzten kontu gehienak bezala, klima-aldaketak ere zerikusia dauka generoarekin. Oro har emakumeak txiroenak eta ahulena dira edozein gizartetan, eta klima-aldaketaren ondorioek ere neurri handiagoan eragiten diete:

Emakumeak eta neskatilak familiarentzako ur eta erregai-horniduraren erantzuleak dira gehienbat. Lehortek eta desertifikazioak zeregin hori oztopatzen dute, eta, horren ondorioz, horretan denbora luzeagoa eman, eta distantzia luzeagoak egin behar izaten dituzte. Horrek eragina dauka haien eskolatzeko-denboran, haien lanorduak biderkatzen baititu.

Lurren txirotzeak nekazaritza-lanaren arduraldia eta laztasuna areagotzen ditu. Zeregin hori emakumeei esleitzen zaie gehienbat: elikagaien ekoizpenaren % 70etik % 80ra bitartekoa emakumeen mende dago Saharaz hegoaldeko Afrikan, % 65 Asian eta % 45 Latinoamerikan.

NBERen arabera, emakumeek eta umeek gizonen baino hamalau bider gehiagoko aukera daukate hondamendi natural batean hiltzeko (adibidez, 2004an, Asiako tsunamiak hildakoen % 70 baino gehiago emakumeak ziren).

Emakumeak dira, ingurumen- eta klima-arraioak direla eta, munduan mugitzen diren 26 milioi pertsonetatik 20 milioi; hau da, pertsona guztien % 80. Migrazioak berekin dakartzen arriskuez eta eskasiez gain, emakumeak eta neskatilak babesgabeago dira sexu-indarkeriaren eta pertsona trafikorearen aurrean.

Datu horiek izanda, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea bai ingurumen politiketan bai migrazio politiketan. Alde horretatik, klima-aldaketara egokitzeko eta ondorioak arintzeko erabilgarri dauden ekintzek eta funtsek lehenetsi egin behar

dituzte eragin handiena jasaten duten lekuak eta herritarrak. Urtean 360 milioi dolar mobilizatzen dira: diru horren % 32 Europara dator, eta % 4 baino ez, Saharaz hegoaldeko Afrikara. Gainera, diruaren % 1 baino gutxiago erabiltzen da herrialde ukituenetako emakumeen beharrianetarako.

Klima-aldaketarekin zerikusia daukaten nazioarteko erakundeetan emakumeek daukaten ordezkartzari dagokionez, emakume nahiko gutxi daude. Klimaren inguruko negoziazioak gizonen esku daude: NBEren klima-aldaketarako batzordeetako kideen % 20 baino ez dira emakumeak, eta (funtsen banaketaz arduratzen den) Green Climate Fund erakundeke zuzendaritza-taldeko kideen % 10 baino ez.

Klima-aldaketak zerikusia dauka giza eskubideekin, genero-berdintasunarekin eta garapenarekin. Genero-ikuspegitik eskubideak eta klima-justizia lantzeko lana presente egon behar da klimaren aldeko mundu mailako ekintzan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Klima-aldaketak herrialde txiroetako emakumeengan daukan eragin handiagoa aitortzean eta nazioarteko erakunde eskudunetan horri begira lan egin dezan.

2. Genero-ikuspegia gehitu dezan egokitze- eta arintze-ekintzetan, eta Parisko 2015eko abenduko Erabakiek ezarritako funtsari ekarpena egin diezaion, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiten eta horiei lotutako giza, ingurumen eta ekonomia kostuak saihesten laguntzen duten ekintzak finantzatzeko aldera.

3. EBN susta dezan "ingurumenagatik errefuxiatu" kontzeptua jasotzea Europako migrazio eta asilo legedian, eta, halaber, Espainiako legedian.

4. Konpromisoa har dezan emakume gehiago egon daitezkeen klimari buruzko negoziazioetan eta klima-aldaketari lotutako nazioarteko erakundeetan dauden Espainiako eta Europako ordezkartza eta delegazioetan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko azaroan Nafarroako Gobernuak "sare teknologikorako eredu berri" bat aurkeztu zuen. Esan zutenaren arabera, Foru Komunitatean dauden zentro teknologiko gehienek osatzen zuten sare hori, lau sektore-eremu handiren inguruan: energia, nekazaritzako elikagaiak, industria eta bioteknologia.

Integrazio eta berrantolamendu prozesu batean ahalegina egin zen efizientzia handitzen eta eragin ekonomikoa eta soziala areagotzen; eta, prozesu horren ondoren, helburu zehatz batzuk ezarri ziren; besteak beste, Europatik datorren finantzaketa handitzea, bikaintasun maila hobetzea, enpresei zerbitzu hobea ematea, finantzaketa publikoaren eta pribatuaren portzentajeak aldatzea, eta, azkenik, ustiapen-emaitzak hobetzea, azken horiek patenteen mailaren eta oinarri teknologikoa duten enpresen sorkuntzaren arabera zenbatzen direla.

Eredu hori aurkeztu zenetik ia lau urte igaro dira, eta, helburuak lortu ez direla egiaztatzeaz gain, ereduaren iraungitze eta zaharkitzapen zantzuak agerikoak dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da estrategia enpresa- eta teknologia-errealitatera egokitzea. Adibidez, Europako Batzordeak lehentse egiten ditu 3Dko inprimaketa, bioekonomia, nanoteknologia, fabrikazio efiziente eta iraunkorra eta kontrako inguruneetako energia. Horiek guztiek eragin handia dute lehiakortasunean.

Era berean, 4.0 industria delakoa Nafarroako Foru Komunitatean erabakitasunez ari da ezaritzen, oraingo garaia dagokion bezala, eta ekimen pribatua da beharizan berrietara egokitzen ari dena. Industria hori ekoizpen adimenduneko prozesuetan oinarritzen da, eta oihartzun handia izanen du gizartean. Nafarroako zentro teknologikoen zeregin nagusia izan behar dute, eskatzen diren beharizanei aurrea hartzeari eta industria garaiz eta behar den moduan egokitzeari dagokienez.

Bilakaera teknologikoa hazkunde esponenziala du, eta faktore hori areagotu egiten da XXI. mendearen lehenengo erdian sartzen garen neurrian. Hala ere, administrazioak ingurunera egokitzeko agertzen duen gaitasuna geldoa da oso. Zentro teknologikoen sare batek ekonomiaren eta gizartearen bilakaera-beharrizanak errealitatera egokitzen laguntzen du. Ezinbestekoa da zentro horiek egunean egotea, Nafarroako zein munduko gainerako herrialdeetako berrikuntzaren errealitatearen ildo berean.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Zentro Teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua. Horretarako, bikoizkeriak ekidin, baliabideak optimizatu, nazioko eta nazioarteko itunak eta estrategiak garatu, eta asmo handiko helburu berriak ezarriko dira.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoa eskualde-mailakoa da, eta azken urteotan haren matrikulazioa handitzen joan da.

2015ean, eta 2015-2016 ikasturtea hasi ondoren, lau ikasle berri eskolatu dira ikastetxean. Laurek mugikortasun-muga handiak dituzte.

Horren ondorioz, gaur egun 3tik 21 urtera bitarteko 61 ikasle daude eskolatuta. Guztiek adimen-desgaitasuna daukate, askotan beste desgaitasun bati edo desgaitasun-sorta bati lotuta. Gainera, 17 ikaslek gurrpil-aulkia darabilte leku batetik bestera joateko. Ikasleak 13 tutoretza-talde edo funtzionamendu-unitatetan antolatuta daude.

Ikasturtean ikasleak gehitzeak instalazioetan barneko espazioa txikiagoa izatea eragin du, eta, beraz, ikasgelak eta bulegoak konpartitu behar izan dira, edukiera aldetik egoera mugaraino eramanik. Eskolatze berantiarren ondoriozko gehikuntza horrek gainerako ikasleentzako arretari ere eragin dio.

Ikasturte honetan Lehen Hezkuntzan unitate bat gehiago sortu behar zenez, tutoretzarako bulego bat eta atezaintza kendu behar izan dira, eta, bi gelak bereizten zituen trenkada eraitsiz, ikasgela berri bat sortu ahal izan da. Atezaintza beste toki batera eraman da, eta espazioa konpartitzen du administrari laguntzailearekin, orientatzailearekin eta erkidegorako zerbitzuetako irakaslearekin.

Aldi berean, Zuzendaritza Taldeko Idazkaritza, orain atezaintzak okupatzen duen espazioan zegoena, beste bulego batera joan da, zeina konpartitzen baitu ikastetxeko ikasketa-buruarekin eta zuzendariarekin. Egoera horrek beste muga batzuk ezarri ditu ikastetxean. Esate baterako, bi fisioterapeutek aldi berean egiten dituzte ikasleerikoko saioak, ikasgela berean, eta abar. Horrez gain, kanpoaldeko patioa txikia da, eta ez dago patio estalirik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak dituen beharrizanei buruzko azterlan bat egin dezan hiru hilabeteko epean, eta eskolatzen diren eta etorkizunean eskolatuko diren ikasleen beharrizanei erantzuteko behar diren obrak gauzatu daitezten.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du eginen dituen jarduketan egutegia ezar dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesa ematen diola Iruñeko Udalak sustatutako ekimenari eta aurkeztutako kereilari, 1936ko kolpe militarrek eta geroko diktaduraren errepresioak egindako krimen guztiak ikertzekoari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babesa ematen diola Iruñeko Udalak sustatutako ekimenari eta aurkeztutako kereilari, 1936ko kolpe militarrek eta geroko diktaduraren errepresioak egindako krimen guztiak iker daitezzen.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die ekimen horrekin bat egin nahi duten erakunde, talde

eta herritar guztiei, beren adierazpenen edo ekar dezaketzen dokumentazioaren bidez kereila prestatzen lagundu dezaten. Halaber, Nafarroako toki entitateei dei egiten die abiaraz ditzaten, beren herritarrek kaltetuak suertatu ziren neurrian, Iruñeko Udalaren ekimenaren antzekoak, instrukzio-epaitegietan kereilak aurkeztuz, egin ahal diren beste urrats batzuen artean”

Iruñean, 2016eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos erahiltzearen 40. urteurrena dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos erahiltzearen 40. urteurren atsekabegarria dela-eta, haien memoria ohoratu, eta berretsi nahi du erabateko ziurtasunez dakusala desadostasun ideologikoen bizikidetzaren sozian sor ditzaketenen tirabirak elkarriketaren eta elkarrekiko errespetuaren bidez gainditu beharrekoak direla.

2. Indarkeria guztien ezin justifikatuzko biktimekiko eta haien senideekiko elkertasuna agertzen du, eta bat egiten du Gandhiren “Bakea da bidea” goiburuekin.

3. Herritar guztiak animatzen ditu indarkeriaren bidea defendatzen dutenei bizkar eman diezaizten, bide horrek zibilizazioa ukatzen duelako eta basakeriara eta deshumanizaziora zuzenean eramaten duelako.

4. Nafar gizartea premiatzen du elkarrekin gogoeta- eta eskuzabaltasun-ariketa bat egin dezan, oraindik orbaindu ez diren urruneko zein hurbileko zauriak sendatzera eramanez gaituena, uste osoa baitu horrela baino ezin izanen ditugula lortu adiskidetzeta eta zinezko bizikidetzeta.”

Iruñean, 2016eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Europaren Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Defendatu egiten du Europar Batasunak susta ditzala giza eskubideak errespetatzearen, heriotza-zigorra deuseztatzearen, lan eta bizitza “duin” kontzeptuak bultzatzearen eta estaldura sozialaren balioak, botere publikoek bermatutako segurtasun- eta pentsio-sistema bat eta osasungintza unibertsal bat barne.

2. Aldarrikatzen du Europak izan duen funtsezko eginkizuna bai klima-aldaketaren aurkako borrokan bai zenbait kontzepturen harrarazpenean, hala nola iraunkortasuna, kontratazio publiko berdea eta ekonomia zirkularra.

3. Gogora dakar ezen, Genevako 1951ko Konbentzioa betez, pertsona batek asiloa eskatu ahal duela beste estatu batean, haren jaioterria zein ere den, baldin eta beldur oinarriduna badu arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizar-te-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politiko-engatik jazarpena jasatearena. Hori dela eta, asiloa eskatzeko eskubidea oinarrizko giza eskubide bat da, nazioarteko zuzenbideak eta estatu kide guztientzat lotesleak diren betebeharrak bermatzen dutena.

4. Defendatu egiten du Turkiarekiko Akordioa indargabetzea eta errefuxiatuentzako eta asilo-eskatzailleentzako irekiera-prozesu bat abiaraztea, oraingoa Europako krisi humanitario larriena baita Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik”

Iruñean, 2016eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu maiatzaren 9an den Europaren Eguna ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du maiatzaren 9an den Europaren Egunaren ospatzearekin, hori askatasun, berdintasun, giza eskubide eta bakearen balioekiko konpromisoaren ikurra baita.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du bere babesa emanen duela eta lan egingen duela europar herritartasunaren proiektu bat eraikitzeko, zeinak ziurtatuko baititu guztientzako aukera-berdintasuna, justizia soziala, integrazio kosmopolita eta elkartasuna.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du globalizazioak eta munduan dauden arazoek dakartzaten erronkek beharrezko egiten dutela elkartasunezko etorkizun baten aldeko apustu egiten duen Europar Batasun bat, konponbideak jarriko dituen,

munduari irekita eta konpromiso sendoa hartuta herrialde ahulenekin, gosearen aurkako borroka-ekin, errefuxiatuen krisiarekin eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokarekin.

4. Europako herritar garen aldetik, lan egin behar dugu lortze aldera Europaren indarra sustaraituta egon dadin geure mugez haragoko bakearekin, segurtasunarekin, demokraziaren zabalkuntzarekin, askatasunarekin eta berdintasunarekin hartutako konpromiso ekintzailean.

5. Integrazio-prozesuaren ondorioz, Europa mailako erabaki-hartzeak eragin nabaria dauka gaur egun gure Foru Komunitatean. Hori dela-eta, garrantzitsua da Europar Batasunarekin dugun konpromisoaz jabetu gaitetzela; izan ere, Europa proiektu bezala sendotzeko bermerik onena guztion ahalegin partekatua da.”

Iruñean, 2016eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Nazioarteko Egunarekin eta bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie gaixo guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Nazioarteko Egunarekin, eta bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie gaixo guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela osorik bete dadin 2013an onetsitako mozioa, eta adierazten du dagoeneko diseinatu den diziplina anitzeko jarduketa-protoko-

loa aplikatu beharra dagoela eta profesionalen eta beste eragile batzuen prestakuntza eta sensibilizazioa landu behar direla.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du patologia horien tratamendu integralean genero-ikuspegia txertatu beharra dagoela, bai eta gaixotasun horren ezgaitasun-prozesuetan eta baremazioan ere”

Iruñean, 2016eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, B meningitisaren txertoaren hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

– Zer egiten ari da Osasun Departamentua B meningitisaren txertoaren hornidurari ezari dagokionez?

– Zer jarduketa egiten ari da Gobernua txertoa baldintza egokietan ematen dela bermatzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezen Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egoteari buruzkoa.

DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezen Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin inolako hitzarmenik edo akordiorik egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Espainiako Industria Ministerioak bideratutako zigor-espeditentea dela-eta, EITBk erabaki du Nafarroan egiten duen emisioa bertan behera uztea. Zigor-espeditentea Nafarroako Gobernuak aurreko legegintzaldian jarritako salaketa baten ondorioa da, eta EITBren emisio horien etena du helburu.

Hainbat aldiz aipatu izan den moduan, EITBren emisioaz gain, beste lurralde eta autonomia erki-

dego batzuetako telebisten emisioak ikus daitezke Nafarroako lurraldearen eremu batzuetan.

Ba al du Nafarroako Gobernuak inongo hitzarmenik edo akordiorik Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin Aragoiko telebistaren emisioak ikusi ahal izan daitezen? Ba al dago Nafarroako lurraldean, Arangoitin hain zuzen ere, Aragoiko Autonomia Erkidegoko telebistaren seinalea jaso ahal izateko instalazio edo gailu teknikorik? Eta, hala izanez gero, zein da instalazio hori, nork jarri du eta noiz eta nork eman du horretarako baime-na?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Zein da Tuterako Reina Sofía Ospitaleko erresonantzia zerbitzua abian jartzeko aurreikuspena?

– Zein aurrekontu beharrian dago beharrezko ekipamenduari aurre egiteko?

– Zein da Ospitaleko instalazioetan erresonantzia zerbitzua kokatzeko aurreikuspena?

– Zein aurrekontu beharrian dago egin behar den obra zibilari aurre egiteko?

– Zein da zerbitzua abian jartzeko behar diren langileen gaineko aurreikuspena?

– Zein da erresonantzia proba bakoitzeko kostuen analisi konparatiboa, kontuan hartuta abian jarri ondoren izanen duen kostua, erositako ekiparen amortizazioaren gastua barne, eta gaur egungo kostua?

– Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzua zer ebaluazio ari da egiten legegintzaldia hasi zenetik?

– Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzua zer-nolako informazio edo esku-hartzea ari da aurrera eramaten ebaluazio horietan?

Corellan, 2016ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Gobernuak aldaketa bat onetsi du

2013., 2014. eta 2015. urteetako Lan-eskaintza Publikoan. '

Aldaketak deuseztatu egiten du 2014. urteko eskaintza osoa, 71 lanpostu zituena, eta 2013. eta 2015. urteetako 20 lanpostutan murrizten du.

Lan-eskaintza Publikotik kentzen diren lanpostuetatik 27 maisu-maistren kidegoari dagozkio.

Horregatik guztiagatik:

– Zeintzuk dira Gobernuak egindako aldaketaren bidez maisu-maistren kidegoan kendu diren lanpostuak?

– Zein irizpide erabili da haiek kentzeko?

– Zein aurreikuspen du Hezkuntza Departamentuak lanpostu horien deialdia egiteko?

– Behin betiko Lan-eskaintza Publikoko lanpostuetatik zeintzuk dira Hezkuntza Departamentuari dagozkionak?

Corellan, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatu diren ekintzei buruzkoa.

MIREN ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatu diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lesakako udal dermioko Agiñako parajeen multzo arkeologiko bat dago, ondoko monumentu megalitikoak biltzen dituena:

– Iparraldean esparru harresitua eta Agiña Ipar harrespilak daude.

– Hegoaldean, berriz, trikuharri bat, Agiña Erdi eta Agiña Hego harrespilak, eta Agiña Soroa tumulua eta harrespila daude.

Gure kulturako eta historiako ondarearen parte den monumentu-multzo horren kontserbazio-egoera eta haren inguruaren zaintza ez dira monumentu multzo horren garrantziari dagozkionak.

Parlamentari honek jakin nahi du ea Kultura Departamentuak egoera horren berri duen, eta, hala bada, zer egin gogo duen Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, ‘Mugikortasuna 2016 Nafarroa’ lehiaketari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Mugikortasuna 2016 Nafarroa lehiaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra sozietate publikoaren bidez, ‘Mugikortasuna 2016 Nafarroa’ lehiaketarako deialdia egin du, mugikortasun eramangarriaren esparruan konponbide berritzaile bat eskaintzen duen proiektu onena saritzeko.

Aldi berean, Nafarroako Parlamentuan lanean hasi da, dagoeneko, ‘Gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzeko Lantaldea.’

Egokitzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak ‘Mugikortasuna 2016 Nafarroa’ lehiaketarako deialdia egitea aipatu lantaldearen emaitzak ezagutu baino lehen?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak (OCU) ‘OCU-Compra Maestra’ bere hilabetekarian, 2016ko maiatzeko alean, “En aguas poco transparentes” erreportajea argitaratu du. Bertan gardentasunaren egoera aztertzen du, funtsezko bost faktoreri dagokienez: hautetsien ondarea eta soldatak, beraien jarduerak, kontratuak, aurrekontua eta gardentasun-eremuetako nabigazioa.

Espainiako Autonomia Erkidegoei buruzko kapituluan, Nafarroako Foru Komunitatea izan

daitezkeen hamazazpi posizioetatik hamahirugarrenean dago. Horrek espresuki erakusten du zailtasuna dagoela Nafarroako aurrekontuari buruzko datuak bilatzeko, eta hutsegite borobila dagoela soldata publikoak jendaurrean jartzeko orduan.

OCUren txostena kontuan harturik, Nafarroako Gobernuak uste al du Nafarroan behar diren urratsak egiten ari direla Nafarroako politika onbidertzeko eta irekia eta gardena izateko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artiku-

luan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, 2015eko esku-hartzei eta 2016ko datuei buruzkoa, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan, erreferentziako sektorea, aplikatutako baliabideak eta esku-hartze bakoitzaren jarraipenerako kudeaketak zehaztuta:

– Zein da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeen kopuruaren banaketa?

– Esku-hartzeak erreferentziako sektorearen arabera banakatuta, esate baterako, familia, adinekoak eta etorkinak.

– OGZen esku-hartzeak, aplikatutako baliabide-taldeen arabera banakatuta.

– Foru Komunitatearen arabeko esku-hartzeak, eta aplikatutako baliabide-taldea.

– Kudeaketen banaketa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arabera banakatuta.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artiku-

luan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren 2015eko oroitidazkiari buruzkoa eta 2016ko hilabeteetako datuak eskura ote dituzten jakitekoa, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Zein izan zen 2015ean udaletako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen aldetik arreta jaso zuen biztanleria, eta horren banaketa geografikoa, eskualdeka?

– Arreta jaso duen biztanleriaren bilakaera.

– Itxaron-zerrenda eta banaketa geografikoa, eskualdeka.

– Erabiltzaileen ezaugarriak. Arreta jaso dutenen banaketa, sexuaren eta adinaren arabera.

– ELZen aldetik arreta jaso dutenen menpekotasun egoera.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistemán biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistemán biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide Mónica Doménech Linde andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Zer esku-hartze egin dute Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistema delakoan biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak 2015ean, Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten erabiltzaileen kopurua eta profila zehaztuta? Eskura al daude, dagoeneko, 2016an iragandako hilabeteetako datuak?

– Zer ezaugarri dituzte erabiltzaileek, sexuaren eta adinaren arabera banaketan?

– Nola banatzen dira, egoera zibilaren arabera?

– Nola banatzen dira, ikasketa mailaren arabera?

– Nola banatzen dira erabiltzaileak, nazionalitatearen arabera?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Izendapen proposamena

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2015eko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts, bi txanda irekikoak eta bat igoera txandakoa, oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdia 2015eko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 15ekoan, eta 2015eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 15ekoan, argitaratu zen. Deialdia bukatuta, eta haren 7.2 arauan ezarritakoari jarraikiz, epaimahaiak ondoko erabaki hauek jakinarazten ditu:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts, bi txanda irekikoak eta bat igoera txandakoa, betetzeko oposizioa gainditu dutenen zerrendak onestea. Hona hemen:

1. Navarro Pérez, Saioa: 72,11 puntu
2. Sarasa Amatriain, Nuria: 67,04 puntu
3. Sabalza Navallas, Marta: 60,95 puntu

4. Ayesta Zardoya, Edurne: 57,38 puntu
5. Landivar Roque, Irantzu: 51,49 puntu

Bigarrena. Igoera txandako lanpostua bete gabe gelditu denez, epaimahaiak erabaki du txanda irekiko lanpostuei gehitzea.

Hirugarrena. Deialdiaren 7.2. oinarrian aurreikusitakoa betetzeko, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari igorri zaio auditoriako teknikariaren lanposturako izendapen proposamena, puntuaziorik handiena lortu duten izangaiena; honako hauek:

1. Navarro Pérez, Saioa: 72,11 puntu
2. Sarasa Amatriain, Nuria: 67,04 puntu
3. Sabalza Navallas, Marta: 60,95 puntu

Argitara ematen da aipatutako arauan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 3an

Epaimahaiburua: Karen Moreno Orduña

